

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

123/2019 Foru Agindua, martxoaren 13koa. Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko arautegia (uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez onartua) aldatzea

Martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, honako hau dio 3.3 artikuluan: “mendirako eta gaur egungo edo balizko lurzoru eta landare estaldurak kontserbatzeko balizko arrisku objektiboa den aldetik, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailari dagokio mota guztietako landa lurretan sua erabiltzeari buruzko kontrola, hori erabiltzeko aurreko administrazio baimena izan beharko dela”.

Foru agindu hori oinarri hartuta, uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko arautegia onartu zen (aipaturiko foru aginduari erantsitakoaren arabera) eta aurreko arautegia indargabetu zen.

Arautegi hori ia urtebete aplikatu ostean, eskuratutako esperientziatik abiatuta, honako hau ondorioztatu da: arautegiaren zenbait alderdi zehaztu behar dira, arautegia bera hobeto ulertu, ezarri eta kudeatzeko; landa lurretako nekazaritza hondakinak erretzeko epeak zehaztu behar dira; eta berariaz adierazi behar da aipaturiko foru aginduak indargabetu duen eta akats baten ondorioz bertan aipatu ez den arautegiren bat.

Kontuan izanik proposaturiko aldaketek ez diotela eragiten uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduak onartzen duen arautegiaren edukari (aitzitik, eduki hori zehazten dute, arautegia ezartzerakoan segurtasun juridiko handiagoa izateko), eta xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarriari jarraikiz, foru agindu hau aurretiazko kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak egin beharretik salbuetsiko da, bai eta Aholku Batzordearen irizpena izatetik ere, Aholku Batzordea sortzen duen eta barneko araudia onartzen duen martxoaren 30eko 410/1999 Foru Dekretuko 3. artikuluko hirugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako gainerako izapide guztiak eginda.

Aginduzko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehena. Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko arautegiaren (uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren bidez onartua) aldaketa hauek onartzea:

1. Xedea eta aplikazio eremua ezartzen dituen 1. artikulua aldatzea. Aurrerantzean hauxe izango da testua:

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Foru agindu honen bidez Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretako nekazaritza hondakinen erreketak (uzten hondarren, mahatsondo eta olibondoen inausketetako hondakinen, lasto-fardoen edo nekazaritzako bestelako landare-hondakinen erreketak barne) arautu nahi da. Era berean, hazkuntza estentsiboko zerealen hondakinen erreketak ere barne hartzen da, erreketaren arrazoiak eskusiboki fitosanitarioak direnean.

Ez ditu arautzen nekazaritza lurretako gainerako erreketak estentsiboak, ez eta baso hondakinen erreketak ere.

2. Erretzeko baimen eskaerak arautzen dituen 4. artikuluko 1. idatz zatia aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

4. artikulua. Eskaerak

4.1. Edozein motatako landa lurretan mota guztietako nekazaritza hondakinak erretzeko baimen eskaerak egiteko, lasto fardoen piloak eta modu estentsiboan landutako zerealen hondarrak erretzeko izan ezik, bete beharko da l. eranskinean ageri den eredu normalizatuaren araberrako inprimaki bat, kopia papera duena. Inprimaki hori eskatzaileari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu ahal izango da, lankidetzaz hitzarmena sinatu duten udalen kasuan, edo zuzenean zonako basozainari. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3. Eskaerak aurkezteko epea ezartzen duen 5. artikulua aldatzea. Aurrerantzean hauxe izango da testua:

5. artikulua. Eskaerak aurkezteko eta erreketak egiteko epea

5.1 Erreketekin hasi aurretik baimena eskatu eta lortu beharko da.

5.2 Mahatsondo eta olibondoen inausketetako hondakinak abenduaren 15etik apirilaren 30era bitartean erre ahalko dira.

5.3 Pipi-gaitzaren (*Phloeotribus scarabeoides* BERN) kontrako borrokan "amu" gisa erabiltako olibondoen inausketetako hondakinak, arrazoï fitosanitarioak direla eta, maiatzaren 1etik 31ra bitartean erre ahalko dira.

5.4 Parajeen kasuan, horiek erabat erreta egon beharko dira maiatzaren 31rako; hortaz, aipaturiko datatik aurrera, ez dago erre daitekeen erregairik.

4. Erretzeko baldintza espezifikoa ezartzen dituen 12. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

3) Ez da egingo erretze lanik edozein baso masatik 15 metro baino gutxiagoko distantzian, suebakia barne.

5. Uztailaren 3ko 274/2018 Foru Aginduaren hirugarren xedapena aldatzea. Aurrerantzean ondoko testua izango du:

Hirugarrena. Foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheargoko xedapen guztiak indargabetzea, eta bereziki Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu hauek: Abenduaren 3ko 558/2012 Foru Agindua; martxoaren 15eko 151/2013 Foru Agindua; martxoaren 13ko 118/2014 Foru Agindua; urriaren 6ko 430/2014 Foru Agindua eta irailaren 30eko 228/2015 Foru Agindua.

Bigarrena. Foru Arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 13a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO